

Aitortza kalitate eta berrikuntzengatik

EROSKI-REN MARKA PROPIOAK NAZIOARTEKO ZAZPI SARI ESKURATU DITU BIKAINTRASUNEAN

- **Joan den urtean Europako merkatuan sartu diren banatzaile-markako produktuen bikaintasuna aitortu du Salute to Excellence Awardsek**
- **Erreferentzietako zazpi saritu dizkiote 2024an, eta 23 herrialdetako 550 produktu zeuden sarirako**

Bilbo, 2024ko maiatzaren 28a.- **EROSKI**k zazpi sari jaso ditu [Salute to Excellence Awards](#) nazioarteko sarien azken lehiaketan; orain berriki banatu ditu [Private Label Manufacturers Associationek](#) Amsterdamen. Zehazki, elikagaietako hiru erreferentziari, zainketa pertsonaleko biri eta edarietako beste biri eman dizkiote sariak marka propioan.

Irabazi duten EROSKIren produktuak EROSKI markako galleta xigortuak Haurrentzako Zizka-mizkak kategorian, EROSKI markako urdaiazpiko zaporeko minitortatxoak hori ere zizka-mizken kategorian eta EROSKI markako glutenik ez duen ogitartekoetarako ogia "Gabe" kategorian. Elikagaien saileko sari horietaz gain, edarien kategorian, bere 2022ko Mar Blava ardo zuriri (Mallorcako Binissalem jatorri izenekoa) zuri iberikoen kalitaterik onenarena eman diote, eta 2022ko Chen de Passion ardo beltzari (Cariñena jatorri izenekoari), berriz, Beltz Iberikorik onenarena. Orobat saritu dituzte bainuko aloe vera gel-a (bere Belle markakoa) Dutxa eta Bainugelaren kategorian eta Belle markako Sensitive krema prebiotiko orekatzailea Aurpegirako Kremak eta Hidratatzaileak kategorian.

"Aitortza hauek erakusten dute nolako apustua egin dugun gure marka kalitatezko marka osasungarri eta iraunkor bat izan dadin prezio onean eta berritzailea aldi berean. 2023an, marka propioko 441 erreferentzia gaineratu genituen, aurreko urtean baino %38 produktu berri gehiago, eta %7 handitu da produktuok saskian duten lekua gure dendetara erostera etortzen direnen artean. Datozen hiru urteetan, gure plan estrategikoak markatzen duen bezala, EROSKI jarraituko du bere markakoak bultzatzen, sorta berrikusten eta promozio eta deskontu gehiago egiten kontsumitzaileek eskatzen dutenari erantzuteko", azaldu du EROSKIko zuzendari komertzialak, Beatriz Santosek.

Salute to Excellence Awards sariak bikaintasuna saritzen dute banatzaileen markako produktuen kalitatean eta berrikuntzan erreparatuz; horretarako, aurreko urtean sartuak izan behar dute Europa osoko supermerkatuetan, hipermerkatuetan,

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



deskontu dendetan, drogerietan eta denda espezializatueta. Marka propioen gainean munduan dagoen lehiaketarik handiena da, eta aurten 23 herrialdeetako 72 txikizkariren 550 produktu, 79 kategoriatan, zeinak ebaluatuak izan baitira produktuaren kontzeptuaren, zapoaren eta itxuraren arabera eta bilgarriari, aurkezpenari eta kalitate-prezioei erreparatuta. Adituen epaimahai batek erabaki du zein produktuk irabazi duten: txikizkako merkataritzako profesionalek, fabrikatzaileek, marketin arloan dihardutenek eta kazetariak osatzen dute epaimahaia.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)